

UDALAREN OSOKO BILKURA **Bilkuraren akta**

Udalbatzaren eratze-saioa 2019-2023 agintaldirako.

Data: 2019ko ekainaren 15a, larunbata.

Ordua: 13:00ak (ordu batak).

2019ko irailaren 11n akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkura-aretoan, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.1 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 37 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 2019-2023 agintaldirako Oyón-Oiongo Udalaren Udalbatza osatzeko saioa egin da udaletxean. Horren harira, honako zinegotzi hauei egin zaie deia, Gasteizko Hauteskunde Batzordeak igorritako egiaztagiriekin bat etorritz. Zinegotziak ordena alfabetikoan izendatuko dira, eta Udalaren osoko bilkura ospatzeko xedearekin bildu dira: Aitor Beloqui Unzurrunzaga, Borja Duque Sáenz, Idoia Eslava Guillerna, Hilario Fernández Ruiz, Manuel Gamarra López-Brea, Eduardo Inclán Gil, Daniel Salvador Adán, Jose Antonio Tarragona Elejalde, Jose Eduardo Terroba Cabezón, Concepción Villanueva Gutiérrez eta Jose Manuel Villanueva Gutiérrez. Saioa jarduneko alkateak iragarri du, Eduardo Terroba Cabezón jaunak, alde zuzenetik jakinaraziz, araudiaren publikitatearekin eta honako gai-zerrendari jarraituz:

Gai-zerrenda

1. Gasteizko Hauteskunde Batzordeko hautagaiak izendatzeko akta.
2. Adin-mahaiaren osaera.
3. Zinegotzien egiaztagirien, interes-adierazpenen eta ondarearen egiaztapena.
4. Zinegotzien kargu-hartzea eta Udalbatzaren osaera-adierazpena.
5. Alkatearen aukeraketa.
6. Alkatearen kargu-hartzea.

1. Gasteizko Hauteskunde Batzordeko hautagaiak izendatzeko akta.

Alkateak hala aginduta, idazkariak Gasteizko Hauteskunde Batzordearen 2019ko ekainaren 3ko akta irakurri du partzialki, Oyón-Oiongo 2019ko toki-hauteskundeetan aukeratutako zinegotziak izendatzeari buruzkoa. Zehazki, honako atal hauek irakurri ditu:

- EAJ-PNV, 506 boto.
- EH Bildu, 347 boto.
- PSE-EE-PSOE, 304 boto.
- Talde popularra, 270 boto.
- Oion si se puede /Si/Bai, 125 boto.

“Koadro honetan jasotako hauteskunde-emaizak kontuan hartuta, honako hautagai hauek izendatzen dira (parentesi artean taldea adierazi da):

1. Jose Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV)
2. Concepción Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV)
3. Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV)
4. Jose Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV)
5. Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE)
6. Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE-PSOE)

Udalbatzaren 2019-VI-15eko bilkuraren akta;

7. Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu)
8. Borja Duque Sáenz (EH Bildu)
9. Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP)
10. Eduardo Inclán Gil (PP)
11. Daniel Salvador Adán (Oion Si/Bai)

2. Adin-mahaiaren osaera.

Idazkariak Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.2 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 37.2 artikuluan xedatutakoaren berri eman ondoren, adin-mahaia osatu dute hautagai zaharrenarekin eta gazteenarekin: Udalbatzaren idazkaria izango da mahaiko idazkaria”.

Idazkari jauna: Nire esku dagoen Idazkaritzako datuak kontuan hartuta, zinegotzi zaharrena Manuel Gamarra López-Brea da, eta, gazteena, Aitor Beloqui Unzurrunzaga”.

Kargua uzten duen alkateak Manuel Gamarra eta Aitor Beloqui zinegotziak deitu ditu, eta adin-mahaia osatzeko agindu die.

Alkate ohia: une honetatik aurrera, saioaren presidentetza Manuel Gamarra zinegotzi jaunaren esku uzten dut.

Alkate ohia mahaitik irten eta publikoaren artean eseri da, kargua hartzeko deia jaso arte.

3. Zinegotzien egiaztagirien, interes-adierazpenen eta ondarearen egiaztapena.

Idazkari jauna: aukeratutako zinegotzi guztiek beren egiaztagiriak eta interes- nahiz ondare-adierazpenak aurkeztu dituzte. Hau da, kargua hartzeko prest daude.

Hauteskunde-batzordeak aukeratutako zinegotzietan begira igorritako egiaztagiriak ondare- eta interes-adierazpenen erregistroan gordeko dira.

Zinegotzi zaharrenak banan-banan deitu ditu zinegotziak kargua hartzeko, lehen abizenaren ordena alfabetikoa errespetatuz:

1. Aitor Beloqui Unzurrunzaga
2. Borja Duque Sáenz
3. Idoia Eslava Guillerna
4. Hilario Fernández Ruiz
5. Manuel Gamarra López Brea
6. Eduardo Inclán Gil
7. Daniel Salvador Adán Oion
8. Jose Antonio Tarragona Elejalde
9. Jose Eduardo Terroba Cabezón
10. Concepción Villanueva Gutiérrez
11. Jose Manuel Villanueva Gutiérrez

Beloqui jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón-Oion con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado.* Euskaraz ere hartu du kargua: Nire kontzientzia eta ohoregatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oyón-Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala.

Duque Saenz jaunak kargua hartu du euskaraz, honako formula honekin: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu binaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti. Gaztelaniaz ere hartu du kargua: *Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria.*

Eslava jaunak kargua hartu du euskaraz, honako formula honekin: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu binaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Fernandez jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón-Oion con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado.* Euskaraz ere hartu du kargua: Nire kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oyón-Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala.

Gamarra López Brea jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón-Oion con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado.* Euskaraz ere hartu du kargua: Nire kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oyón-Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala.

Inclán Gil jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón-Oion con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado.* Euskaraz ere hartu du kargua: “Nire kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oyón-Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala.”

Salvador Adán jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española.* Euskaraz ere hartu du kargua: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu binaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Tarragona Elejalde jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española.* Euskaraz ere hartu du kargua: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak

Udalbatzaren 2019-VI-15eko bilkuraren akta;

babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Terroba Cabezón jaunak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española.* Euskaraz ere hartu du kargua: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Villanueva Gutiérrez andreak kargua hartu du gaztelaniaz, honako formula honekin: *Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española.* Euskaraz ere hartu du kargua: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Villanueva Gutiérrez jaunak kargua hartu du euskaraz, honako formula honekin: Oyón-Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oyón-Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti. Gaztelaniaz ere hartu du kargua: *Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón-Oion. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón-Oion por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejala y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria.*

Behin zinegotzi guztiek kargua hartu ondoren, Gamarra jaunak, adin-mahairen presidenteak, osatutzat jo du 2019 eta 2023 bitarteko Udalbatza.

4. Alkatearen aukeraketa.

Idazkari jaunak Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 196 artikulua irakurri du: “Udalbatza osatzeko saioan bertan aukeratuko da alkatea, honako prozedura hau jarraituz:

- a. Hautagaiak izan daitezke zerrendaburu izango diren zinegotzi guztiak.
- b. Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, alkate aukeratuko dute.
- c. Inork ez badu lortzen gehiengo hori, alkate izendatuko da udalerrian boto gehien lortu dituen zerrendaren burua.

Idazkari jauna: Oyón-Oiongo udalerrriaren kasuan, gehiengo absolutua 6 botokoa da. Udalerrian boto gehien lortu dituen zerrenda EAJren zerrenda da, 506 botorekin.

Idazkari jauna: Zerrendabururen batek uko egiten dio hautagai izateari?

Gamarra López-Brea jaunak uko egin du.

Idazkariak toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.d artikulua irakurri du: d) akordioak ohiko botazioaren bidez hartuko dira, betiere Udalbatzak ez

badu adosten bozketa nominala kasu zehatz batetarako. Botoa positiboa edo negatiboa izan daiteke, eta Udalbatzako kideak abstenitu egin daitezke.

Honako hau xedatzen da Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia) 101 eta 102 artikuluetan: Bozketak ohikoak, nominalak edo ezkutukoak izan daitezke.

Ohikoak dira baieztapen, ezeztapen edo abstentzio zeinuekin adierazten direnak.

Nominalak dira izen-abizenen ordena alfabetikoaz egiten direnak, eta presidentek eta Udalbatzako kideek “bai”, “ez” edo “abstenitu egingo naiz” erantzuten dute haien izena esaterakoan.

Ezkutukoak dira Udalbatzako kide bakoitzak ontzi edo poltsa batean papertxoak sartzen dituenean.

102. art.

1. Bozketa-sistema nominala ohiko bozketa izango da.

2. Bozketa nominalerako udal-talde batek eskaera egin beharko du (gaur arte ez da osatu udal-talderik), eta Udalbatzak onartu beharko du ohiko bozketa baten gehiengo sinplearekin.

3. Ezkutuko bozketa soilik pertsonak aukeratu edo kaleratzeko erabili ahalko da.

Honako hau adostu da:

- 1) Alkatearen aukeraketa ohiko bozketa bidez egitea, hau da, eskua altxatzen.

Aldeko botoak: 9 (bederatzi): Borja Duque Sáenz, Idoia Eslava Guillerna, Hilario Fernández Ruiz, Manuel Gamarra López Brea, Daniel Salvador Adán, Jose Antonio Tarragona Elejalde, Jose Eduardo Terroba Cabezón, Concepción Villanueva Gutiérrez eta Jose Manuel Villanueva Gutiérrez.

Abstentzioak: 2 (bi) Aitor Beloqui Unzurrunzaga eta Eduardo Inclán Gil.

Alkatea aukeratzeko bozketa egin da, honako emaitza honekin:

- Daniel Salvador Adán, 0 (zero) boto.
- Aitor Beloqui Unzurrunzaga, 2 (bi) boto, Aitor Beloqui Unzurrunzaga eta Eduardo Inclán Gil.
- Jose Eduardo Terroba Cabezón, 6 (sei) boto, Idoia Eslava Guillerna, Hilario Fernández Ruiz, Manuel Gamarra López Brea, Jose Antonio Tarragona Elejalde, Jose Eduardo Terroba Cabezón, Concepción Villanueva Gutiérrez eta Jose Manuel Villanueva Gutiérrez.
- Jose Manuel Villanueva Gutiérrez, 3 (hiru) boto; Borja Duque Sáenz, Daniel Salvador Adán eta Jose Manuel Villanueva Gutiérrez.

Bozketa amaitu ondoren, Mahaiak botoak zenbatu ditu, eta Beloqui jaunak emaitzaren berri eman du:

Emandako botoak: 11

Boto baliogabeak: 0

Boto zuriak:

Hautagaitzetarako botoak, honela banatuta:

Daniel Salvador Adán: 0 boto.

Aitor Beloqui Unzurrunzaga: 2 boto.

José Manuel Villanueva Gutiérrez: 3 boto.

José Eduardo Terroba Cabezón: 6 boto.

Gamarra jauna: “José Eduardo Terroba Cabezón Oyón-Oioneko alkate izendatu da, zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortu baitu”.

5. Alkatearen kargu-hartzea.

Gamarra jauna: “Alkate hautetsiak kargua onartu behar du, eta karguaz jabetzeko, hitzeman behar du”.

Alkate hautetsia: “Onartzen dut Oyón-Oiongo alkatearen kargua”, eta karguari zin egin dio, formula honi jarraikiz: Oyón-Oiongo alkate-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babesteko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, alkate-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa.

Alkate hautetsia karguaz jabetu da.

Gamarra jaunak makila entregatu dio. Eta une horretatik aurrera, Terroba jaunak zuzendu du saioa.

Alkate jaunak hitz egiteko txanda eman die zerrendaburu izan diren zinegotziei.

Adán jaunak ez du erabili.

Beloqui jauna: Eskerrak eman nahi dizkiet gudan konfiantza jarri duten boto-emaileei, besterik ez.

Gamarra López-Brea jauna: Egun on guztioi. Oyón-Oiongo talde sozialistak, kideekin dagozkion kontsultak egin ondoren, erabaki du botoak ematea Eduardo Terroba jaunak udalerrri honetako alkate-kargua berehala hartu ahal izateko. Hala ere, adierazi nahi dugu Udalbatza honek berehala eta atzerapenik gabe alkate bat izateko egin dugula. Gure ustez, botoa eman diguten herritarrek hori egin dute gu, gure lanaren bidez, ahalik eta modurik onenean haien zerbitzuan egoteko. Eta halaxe egingo dugu; partiduen siglei jaramon egin gabe, hiribilduak merezi dituen zerbitzu eta prestazioak izan ditzen laguntzen duten ideia eta ekimenak babesten, nondik datozen aintzat hartu gabe. Udalbatzako nire kideei, guztiei, eskatu nahi diet konturatu daitezela elkartzea eta ahalegintzea direla legegintzaldi hau helburu eta xede onenetara eramateko bitartekorik onenak.

Halaber, Oyón-Oioneko EAJri eskatzen diogu datozen lau urteetan hemen izango garen askotariko talde politiko guztiak aintzat hartzeko, eta legegintzaldian gauzatu beharreko eginkizunen gehiegizko erabilera ez egiteko. Esan dudan moduan, guztiok jar ditzakegu ideiak eta ahalegina, herritarren mesedeetarako, eta espero dugu hemendik aurrera hala izango dela. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu aurreko hauteskundeetan Oyón-Oiongo PSOE taldean konfiantza jarri zutenei; konfiantza horri behar bezala erantzuten saiatuko gara. Eta, bukatzeko, legegintzaldi ona opa dizuegu guztiei. Guk ahalegina eta lana jarriko ditugu mahaiaren gainean, hau guztia errealitate bihur dadin. Ez zaizkigu gogoak eta ilusioa faltako. Eskerrik asko.

Villanueva Gutiérrez jauna: Berrero ere, lau urte iraungo dituen aldi politiko berri bati ekingo diogu. Epe horretan zehar, mahai honetan, Oyón-Oiongo herritarrek sufragio

bidez hautatutakoek jardungo dugu. Udalbatza hori 11 pertsonak osatuko dugu, herritarren konfiantza daukagunak, eta espero dut herritarren ordezkari duinak izango garela, gure betebeharrak betez, eta zinegotzien alde-egiterik ez egotea, aurreko legegintzaldian gertatu zen moduan. Soilik geratzen zait gure taldean konfiantza jarri duten herritar guztiei eskerrak ematea, oposizioaren buruan jarri baikaituzte, haien interesak eta ongizatea babesteko, gure juramentuan adierazi dugun moduan. Eta, bereziki, eskerrik asko Elizmendiri, urte hauetan zinegotzi gisa egin duen lanagatik, eta Pepiri, egunero-egunero jasan nauelako eta animoak eman dizkidalako politikarekin eta nire herrikideen zerbitzura eginiko lanarekin jarraitzeko. Ziur izan aurreko legegintzaldietan bezalaxe jarraituko dugula, adi eta zaindari-lanak eginez, oposizio irmo eta sendoa –baina konstruktiboa– eginez, eta ezetza onartzeari uko eginez, orain arte bezala. Gure lan egiteko moduak argudioak izan ditu oinarri eta, nola ez, ikuspegi sozialistatik eta Oyón-Oiongo herritarren alde egin dugu lan, eta halaxe izango da hemendik aurrera ere. Gure iritzia defendatuko dugu, gure arrazoiak eta lan egiteko modua baliatuz, eta hautetsontzietan jaso dugun babesa oinarri hartuta. Izan ere, udal honetako bigarren indar politiko bihurtu gaituzte herritarrek. Hori horrela, gure helburua beti izango da herri honetako biztanleentzako ongizatea lortzea.

Zorionak eman nahi dizkiet alkateari eta Udalbatzako gainerako kideei, eta esan nahi diet, halaber, helburu handinahiak izan ditzatela eta egoerak interpretatzen ikas dezatela. Alderdi politiko desberdinak ordezkatzeko baditugu ere, eskatu nahi diet lehentasuna eman diezaiotela herritarren ongizateari, eta ez agintaritza politiko zorrotzari; bazter ditzatela “nire alderdiak esaten duelako eta kito” moduko esamoldeak. Berrito eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi eta ziur egon zaitezte ez dizuegula hutsik egingo.

Alkate jauna: Lehenik eta behin, ongietorria egin nahi diet zinegotzi berriei, eta eskerrak eman nahi dizkiet aurrekoei, egindako lanarengatik. Nire asmoa eta nire taldearena da haiek egindako lanarekin jarraitzea; Oyón-Oionen alde lan egin nahi dut, hori baita nire kezkarik handiena, siglen gaineratik. Gauza interesgarriak geratu dira egin gabe, eta horiek burutzen ahaleginduko gara. Eta aitortzen dizuet, behar izan denean, ez dudala arazorik izan nire alderdia kritikatzeko. Kritika onartzen dut, baina kritika konstruktiboa; ez dut jasaten kritikatzegatik kritikatzea.

Beste aztergairik ez dagoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du 13:40ean (bilkura 13:00etan hasi da), eta nik, idazkari gisa, horren guztiaren fede eman dut.

Oyón-Oionen, 2019ko uztailaren 9an.

Udaleko idazkaria:

OE. Presidenteak: